



# Eraztunak eta abar

**JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA  
'TXILLARDEGI'**  
IDAZLEA

**E**uskaldunen kontrako erasoen zerrenda luzean (egon, *euskarraren* kontrako erasorik ez dago), leku berezi bat eman nahi diote batzuek Miguel Sanz amorratuari.

Nafarroako kondairan, ordea, Sanzen kastako jaunsilikak ez dira batere berriak.

Liburu hau (*El Libro negro del euskera*; Joan Mari Torrealdai; Ttarttalo, 1998) ezagutu behar lukete ipi-apa euskaltzale guztiak. Eta gauza bera Jose Maria Jimeno Jurio-ren *Navarra. Historia del euskera* izeneko (Txalaparta, 1997). Eta orduan iritziak ematen hasi, baina ez lehenago.

Egia esan, badago metodo isil, bake-tsu, eta dotore bat hizkuntza gizatalde bat desager erazteko: hizkuntza hori gizarte funtziorik gabe uztea.

Gure zaharrek hau esaten zutenen: *Euskera? Utikan! Ez du ezertarako baliu*; eta Soziolinguistika hitza bera asmatua izan baino lehenago, egia boro-bila aldarrikatzen zuten.

Gizarte funtziorik ez duen hizkuntza, hil egiten da.

Borroka, beraz, funtziorik bai/ez hautuan erabakitzen da.

Espainiarrek eta frantziarrek geronek baino hobeki dakite hau. Eta nazio-arazoa funtsean hizkuntza arazoa izanik, espanturik gabe, baina irmo, hizkuntzaren alorrean jotzen dute gogor.

Itzuletara: zerk sutzen ditu Sanz eta neo-frankistak? Euskaltzaletasuna Nafarroa gorantz doala erreparatzeak.

Eta Euskal Herria ahalik eta azkarren erdalduntzeko joranak akuilaturik, «forma onak» galtzen dituzte behin eta berriaz.

Eskaletako eraztunak, debekuak, multak, eta abar, horretan asmatu eta

ezarri ziren. Eta ez dira «sano bilindugüismo» mitiko horrekin amaituko.

Abilenak, trebeenak, maltzurrenak, progreak izan dira beti.

Jokabide honen ereduak garbi azaldu zuen (1716) José Rodrigo Villalpanda Fiskalak: (*hay que utilizar instrucciones y providencias muy templadas y disimuladas, de manera que se consiga el efecto sin que se note el cuidado* (Torrealdai, 6).

Alegia: haur erdaldunak heburu. Eta honetarako salatarien eraztuna eskoletan.

Maisu anti-euskaldunen zerrenda, aspaldi abiatu zen: Beasain, 1730; Aia, 1784; Elgoibar, 1787.

Oso lekukotasun mamitsua utzi digu Kardaberatz hernaniarrak (1761) *Euskeraren berri onak* liburuan (Auspoa, 37; 1964). Araba orduantxe hasi

**Gizarte funtziorik ez duen  
hizkuntza hil egiten da.**

**Borroka, beraz, funtziorik  
bai/ez hautuan**

**erabakitzen da**

zen Lautadan euskara galtzen. Eta erabat mindurik salatu zuen gipuzkoar jesuitak eraztunaren kontua: *eskoletan sortija edo siñaleakin, azote edo kastiguakin, eragotzi nai dute* (73).

Eta gogoan bereziki Araba zeukalarik, hau irakur daiteke: *euskera ondartzeko alegiñ guziak egiten badira, ta gure mutilxo edo aurrai bildur eta azoteakin euskeraz itz egitea eragotzen bazaie ... gero guraso edo kurak diranean, nola, ongi premian dan bezala, beren etxe eta ergoienetan (erri txikiak onela Araban deitzen diete), dotrina erakatsi ta konfesatuko dute?* (74).

Baina kontakatituen eraztun mada-

rikatuak aurrera egin zuen XIX. mendean barrena; Hegoaldeko bazterretan euskaldunengan auto-gorrotioa hedatuz.

Beste anitzen artean, Jose Migel Barandiaran dugu lekuko ezaguna (Ataun, 1900).

Eta zer esango sadismoraino iritsi ziren maisu arrotzez? Frankismoaren garaian bertan (1969) salatu zuen Nafarroako Principe de Viana-ko *Suplemento mensual destinado al fomento del vascuense* izenekoak (Torrealdai ere gogorazia, 176); maisu erdaltzale amorratu haietako batek konpasaren puntzak ebaki baitzion haur bati mihipeko galgatxo, aurrerakoan euskaraz hitz egin ez zezan.

Liburu zentsura, bestalde, ez zen 1936an sortu. Kardaberatzek euskara idatzitako San Ignazio-ren biografia, 1766an debekatu zuten Madriletik...

Eta, Iparraldeaz zer?

Torrealdai aipatzen ez duen txosten ezinago mamitsu bat badago: *Notes pour... L'Instruction Primaire dans les Basses Pyrénées* (M.L. Soulice; Bibliothèque-Archiviste. Pau, 1881)

Berragitaratzea merezi luke, ene ustez.

Frantses Inspektoreak ernegatuta bizi ziren Iparraldean. Eta euskara ezin erazirik, mezu sutsoak bidaltzen zituzten Parisa; egurra eskatuz.

1833az geroztik bide egokia hartu zela dio 1881ko Txostenak: *il faut employer tous les moyens pour y introduire l'usage de la langue française* (24).

Baina gauzak motel doaz. *Le Pays Basque (1881) mérite une étude spéciale. La situation y est spécialement mauvaise ... Les deux tiers. les trois quarts des enfants qui fréquentent nos écoles, ne sont pas plus capables de parler le français usuel, que de le comprendre. Quand on les interroge, ou qu'on leur donne une explication, on est tenté de se croire au milieu d'étrangers* (43).

Ipartarrak euskara hutsez bizi ziren XIX. mendean: *leur langue nationale est à peu près la seule dont ils fassent usage. C'est la langue des besoins vulgaires et journaliers, ainsi que des sentiments de famille ... On parle, on pense, on sent en basque; dans un idiome qui n'a rien de commun avec nos idiomes occidentaux* (42).

1864ko ikasturtean, 11.258 ziren frantsesez ez zekiten haurrak. Gehiegi.

Hala ere, aspaldidanik (1833) zegoen debekatuta eskolan euskara ezertarako erabiltzea: *Contrairement aux conseils donnés aux enfants par les curés (parlez la langue de vos pères) l'Inspecteur de l'arrondissement a pris un parti décisif: J'ai exigé des instituteurs l'abolition entière de l'usage de la langue basque en classe.*

**Frantses Inspektoreak  
ernegatuta bizi ziren  
Iparraldean. Euskara ezin  
erazirik, mezu sutsoak  
bidaltzen zituzten Parisa**

Areago. Orduan ere (1881), ETA gabe, eskuz esku jokatzeko zuten Parisa eta Madrileko gobernuek: *Il faudrait pour le Pays Basque des lois exceptionnelles ... ainsi qu'il en existe dans la vallée de l'Aheascoa [sic], première province espagnole (limitrophe du canton de Saint Jean Pied de Port).*

Eta hona segida: *Les jeunes gens y sont déclarés inéptes à toutes les fonctions civiles et militaires s'ils n'apprennent l'espagnol par principes* (42).

Horra hor Demokrazia eta Pluralismoa zertan dautzan.

Guk Egia eta Justizia behar dugu aurrenik.



EL PAIS

## Espainiar txikiak

Espainiak milioi bat biztanle irabazi zituen hamar urtean: askozak gehiago, ziur aski, zenbat klandestino edo zenbat ilegal dauden jakingo bagenu. Espainiar txikiak dira, marginalak, gehiago egitera behartzen dituzten eta mesede gutxiago egiten dieten lege bereziak ezartzen zaizkienak: eskoletan, etxebizitzetan, tabernetan edo merkatalguneetan onartzen ez dituztenak dira. Behartsuak dira, baina ez geureak bezalakoak: azal eta ile okerragoa dute, eta lehen begiratuan bereizten dira. Taxiek garraioa uka diezaiekete, eta batzuek ukatu egiten

diete; txiro-etxeek jana ukatu. Eta mojatxoek laguntza diskriminatuko dute. Bizia salbata nahiak ekarri dituzte hona; aberriatzeak heriotza ekarriko die, eta bera bestearen ondoren andanaka egiten dira, batzuetan, iritsi berri direla, hondartzan leher eginda dauden une berean izaten da. Ez da berehalako heriotza, baina bai estatistikoa: ihes egiten duten herrialdeetan baraz besteko bizi itxaropena Espainiaren erdira ez da iristen. Eta okerre-na ez da heriotza hori, baizik eta eduneroko bizitza goseak eta miserian. Hori bai, espainiar txiki ezin hobekak dira neoliberalismoarek sorturiko politika eta enpresa kolusio horrek esplota ditzen, eta izaki egokienak protestarik gabe esplotatzeko. Haien kon-

tura gaizkile elezaharrak egiten badira, haiekiko sor daitekeen beldurra edo haiek urrun eduki nahi izatea ez da arrazismotzat joko.

Esan dudana guztia ez da, ordea, Espainiaren asmakizuna: Ameriketako Estatu Baruetan dago; zortzi milioi etorkin legezatu dituzte amerikar herriarrek egin nahi ez duten lana egin dezaten. Eta historiarik ere badago.

Duela mende erdi Frantzia bizi nintzen, eta gertakarien orrialdeetan irakurtzen nuen, lapurrak, bortxatzaileak edo hiltzaileak «espainiar baten tankera» zuela, edo espainiar zirena salatzen zieten azentua zutela. Frantziarrek ez zuten gaur egun dugun kontzeptua, hau da, herrialde honetako biztanleak autonomiatan zatituta

gaudela eta Jupiterren saihetsetik, edo Apolorenetik edo Dianarenetik datozena; eta denok espainiarrek ginela uste zuten. Beno ni ez hainbeste: altua, ile argikoa eta azal zurikoa, eta, agian, nire arbaso irlandarren beste ezaugarri batzuk edo frantsesena, bai baita; eta ezaugarri gutxi arbaso judu-gaztelarrenak eta sevillar-mairutarrak. Ni kasta gorenekoa nintzen.

Egia ez dagoenez geografiaren mende, orain nire aberrian erromes naizelarik, afrikar horiek, indiar horiek, asiarrak edo arabiar horiek baino gehiago izaten jarraitzen dut. Eta giza izatera hain da izugarri inozoa, ezen ez baina-gor batere harro nire nagusitasunaz. Bai baitakit faltsua dela. Geopolitika.

● Eduardo Haro Tecglen